**Ordenantza Fiskalaren eranskina aldatzea, jabeari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.**

Indarrean dagoen Ibi tasa aldatzea honako tarifa hauetara:

- Ibilgailu batentzako edukiera duten garajeak, 9,83 euroko urteko tasa.
- Ibilgailu bat baino gehiagoko edukiera duten eraikinetan, honela kalkulatuko da tasa: garajeak duen ibilgailu plazen kopuruarekin bikoiztuta.

Udal aparkalekuaren erabilpen tasa (sei hilabete):

| | |
|---|---|
| Kamioiak, autobusak eta antzekoak, Itsasondon erroldatuak | 32.76€ |
| Kamioiak, autobusak eta antzekoak Itsasondon erroldatu gabeak | 65,51€ |
| Roulottak eta karabanak, Itsasondoko bizilagunak | 16.38€ |

Beko kaleko zelaiaren tarifak:

| | |
|---|---|
| A) Hilabeteko tasa | 50,00€ |
| B) Hilabeteko tasa | 100,00€ |
| C) Hilabeteko tasa | 100,00€ |

Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu bereziaren tasen Ordenantza Arautzailea 1998ko urriaren 1ean onetsi zen behin betiko, eta testu osoa 1998ko abenduaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aipatutako Foru Arauaren 18.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, interesatuek Errekurtso Kontentzioso-Administratiboa jarri ahal izango dute aipatutako erabakien kontra. Errekurtsoa bi hilabeteko epean jarri beharko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko dagokion Salaren aurrean.

Hori horrela izanda ere, eta aipatutako arauak baimentzen duen gisan, interesatuek erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango dute, nahi izanez gero eta bide kontentzioso-administratiboa erabili aurretik, hilabeteko epean, Gipuzkoako Auzitegi

Ekonomiko-Administratibo Foralaren aurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aipatutako erabakiak argitaratzen diren egunaren hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.